

Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia orduen idazkerari buruzkoa:

1. Orduak honela ematen dira: *ordu bata, ordu biak, hirurak, laurak, bostak, seiak, zazpiak, e.a.* Ordu hitzaren ordeztan oren ere erabil daiteke: *oren bata, bi orenak / biak, hirurak, e.a.* Eta honela deklinatu: *ordu batean, bietan / ordu bietan / bi orenetan, hiruretan, e.a.*
2. Erdia honela adierazten da: *ordu bat eta erdiak, ordu bi eta erdiak, hiru eta erdiak, bost eta erdiak, ordu bat eta erdietan, ordu bi eta erdietan, hiru eta erdietan, bost eta erdietan, e.a.* Gauza bera oren hitzarekin.
3. Laurdena honela adierazten da: *ordu bat eta laurdenak, oren / ordu bata eta laurden, ordu bi eta laurdenak, oren / ordu biak eta laurden, hirurak eta laurden, hiru eta laurdenak, hirurak eta laurdenetan, hiru eta laurdenetan, bostak laurden gutxi(ago), e.a.*
4. Minutuak: *hamarrak hamar gutxi, hamarrak hamar gutxiago, hamarrak hamar gutxitan, hamarrak hamar gutxiagotan, seiak eta bostean, laurak eta hogeian, hirurak eta hemezortzian, e.a.*
5. Zifretan ematen direnean, bi punturekin bereizten dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili behar dira beti: *00:12, 12:10, 09:25, e.a.* Deklinatzen direnean, orduetara plurala erantsi, eta minutuetara singular marka, dagozkien lotura bokalekin: *15:00etan, 15:03an, 15:04an, 15:30ean, e.a.* Irakurtzeko orduan hobe da, hala ere, honela irakurtzea: *hiruretan, hirurak eta hiruan, e.a.* Erabilera formaletan ontzat ematen dira, dena den, *hamabostak eta bostean, hamabostak eta hamabostean, e.a.*
6. Egitarau, kartel eta horrelakoetan ez da eragozpenik erdiko bidea hartzeko: *arratsaldeko 5etan, goizeko 11,30etan, iluntzeko 8etatik 11k arte, arratsaldeko 3etatik gaueko 12ak arte, e.a.*

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995eko ekainaren 30ean onartua)